



30/2021 EBAZPENA, MAIATZAREN 4KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, 2020 URTEAN EMANDAKO ZERBITZUAK BERRIRO BAREMATU ONDOREN, INDARREAN DAUDEN LAN-POLTSEN ZERRENDAK ARGITARATZEKO XEDATZEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak ezartzen duenez, baldin eta Aginduaren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak badituzte, lan-poltsetan sartuta dauden langileak EAEko Administrazio Orokorrean edo berorren erakunde autonomoetan bete dituzten zerbitzuen arabera birbarematuko dira.

Era berean gaineratzen du, lan-poltsetan daudenen puntuazioa 0,003 puntuz handituko dela aurreko urtean lanean emandako egun bakoitzeko. Horren ondorioz, egindako birbaremazioa 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte, biak barne, emandako zerbitzuei dagokie.

Birbaremazioak Aginduaren 35.3 artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz gertatu diren lan-poltsetako kideei buruzko aldaketak jasotzen ditu.

Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT:

1.- Indarrean dauden lan-poltzak berriro barematzeari ekitea. Birbarematze horretan, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31era arteko epean, biak barne, eginiko zerbitzuak 0,003 puntuz egun bakoitzeko baloratuko dira, baldin eta EAEko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz Aginduaren 1. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

2.- Eginiko zerbitzuak berriro barematzearen ondorioz sortutako lan-poltsen hurrenkera berria 2020eko maiatzaren 15ean sartuko da indarrean.

3.- Birbaremazio horren ondoriozko zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Lan-poltsetako Atarian argitaratzeko agintzea; zerrenda horiek eskuragarri egongo dira <https://www.euskadi.eus/administrazio-orokorraren-lan-poltzak/web01-sedeep/eu/> helbidearen bidez.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 4an

FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA